

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Zein da zure bezeroa?**

Edonork erosi ditzake, neurri ezberdinetakoak egingo ditugu (umeentzako, gazteentzako, helduentzako eta hirugarren adineko pertsonentzako).

- **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

- Negu hotzeko klimetan bizi dira (irizpide geografikoa)
- Edozein adinekoak (irizpide demografikoa)
- Edozein generotakoak (irizpide demografikoa)

Merkatua, beraz, segmentazio berezitua, hau da, segmentu ezberdinetako partaideei era ezberdinean zuzenduko dizkiegu galtzak. Bereziki, bi irizpideren arabera banatuko ditugu bezeroak (sexua eta adina). Sexuari dagokionez, bi motatako galtzak egingo dira: emakumezko gorputzei egokituak eta gizonezkoenei egokituak izango dira. Bestalde, adin ezberdinen artean ere eredu desberdinak egingo ditugu: umeentzat (3-6 urte eta 6-12), gazteentzat (12-18), eta helduentzat (18+).

